



Baina zer arraio da Tarara?

IÑIGO SATRUSTEGI DANI BLANCO

Sanfranen gaude, auzo eszena bat da eta kaleko zarata da nagusi. Aktore nagusia oso azkar ari da hizketan, orain mikrofonotik, orain mikrofonorik gabe. Rosa Teresa mintzo zaigu, batzuetan bere haurtzarotik, bestetan heldutasunetik. Biolina jotzen du, hori nahi zuela txikitatik eta osabak emango dizkio eskolak. Hala hasi da hain zuzen antzerki emanaldia, pianoaren laguntzaz, biolinaren musikarekin. Lehengo eszena, bigarrena, hirugarrena... Iragarri egin dituzte, titulu eta guzti. Laugarrenerako apuntatzeari utzi diot. Kostatu zait sartzea. Informazio gehiegi dago oholtza gainean: zarata, oharrak, datak, gutunak, ahotsak... Gainditu nau. *Jarri arreta, Iñi*. Gero jakin dut ez nai-

zela bakarra izan, lagunak ere kostata egon dira hasieran.

Halako batean kantuan hasi da Jazmin. *La tarara sí, la tarara no*. Aire freskoa da Kepa Errastiren papera, ongi asko egiten dakienaren demostrazioa. Kantuan berri Sanfraneko trabestia, *horteroaren* eta dotorearen arteko jantziak daramatza: *Todos me dicen el negro, llorona...* Azkoi-tieraz ari da *atxabaltakua*, eta jatorrizko bertsioan nongo azentuarekin egingo lukeen pentsatzen egon gara saio ostean. Guardia zibilak habanera kantatzeko eskatu dio? Itzultzaileen tarak.

Ikuskizuna aurrera joan ahala hasi dira matazaren hari-muturrak banan-banan askatzen: ama-alaba harremana, sute bat San Juan guez, osaba Cristobal,

'TARARA' ANTZEZLANA HIKA KOLEKTIBOA

NOIZ: Otsailak 10

NON: Principal Antzokia (Gasteiz)

gertakizun bat eta Schubert, Bachnet eta Txaikovskiren agerpenak dituen biolin-jotzailea. Nola sinetsiko dute irudimen handiegia duen haurraren egia? *Emakume guztiak jasaten dute*. Aita ez da inon ageri, baina oso presente dago. Ordenatu egin dira arrosa metalikoen azpian ikusi ditugun hamapiko eszenak. *Emakume batek batzuetan egin beharrekoa egin behar du*. Klak, argitu da misterioa.

Baina zer arraio da Tarara? Tarara herri-kantua da, abesti mota bat. Bemolez eta sostenituz betetako hiru silaba, *ta-ra-ra*. Tarara Jazmin da, edo Manuel. Sanfraneko prostituta, trabestia, mari-koia. Tarara Rosaren laguna da. Ama bat. Tarara bortxa istorio bat da, jazarpenarena. Konplize eta konplizitate istorio bat. ●